

# Liburuak


KRITIKA

## Gure historiaren pasarte bat

Helduen literatura

Gema Lasarte

LIBURU BATEK nigan norainoko eragina izan duen neurtzeko baditut sistemak, zuk irakurle zerorrenak izango dituzun bezalaxe, bat dudarik gabe irudien kontua da: zer irudi uzten dizkidan liburuak katramilatuta ene errailetan. Beste bat, liburua bukatzeaz, bukatu beharrean hasieratik segitzeko joera. Horixe gertatu zait *Twist*ekin bukaera aldera hain ohitua Lazkano, Soto eta Zeberioen bizi edo heriotza legeekin ezin ametitu haiekiko hura bukatzea zihoa-la. Indar handia du eleberriak. Eta ezin bestela, gure historiaren pasarte baten berrirakurketa baita Canok proposatzen diguna. Gurean bi gazte akabatu eta karez desagertu zituzten eta idazleak hura bizi izan zuen orori ahotsa eta fokua jarri dio fikzio historiografikoa izan daitekeen literatura lan honetan. Beraz, heriotzaz, historia hurbilaz, edota gazte batzuei lapurturiko bizitzaz dihardu eleberriak gupidarik gabe. Eta horren lekukotza ematera literatur pertsonaia andana agertzen zaigu.



Lazkano da pertsonaia nagusia, hark ezkonduko ditu iragana eta oraina, hark ezagutzero emango dizkigu hildakoak eta bizi dire-

*Twist.*  
Harkaitz Cano.  
Susa.  
440 orrialde.  
26 euro.

nak, batez ere, berak bere burua, bere egonezina emango digu ezagutzero, bera baita kontatzeko bizi-rik geratu dena, hildakoak berarekin bizi dituen eta gertatukoaren inguruan erantzunak baino galdera gehiago dituen. Soto eta Zeberio, hil zituztenean eta karez desagerrarazi, Lazkano haiekin hiltzen hasi zen, hantxe geratu baitziren elkarrekin konpartitzen zituzten antzerkizaletasuna, literatura eta etorkizun hobe baten sinesmena.

Antzerkia eta *performancea* muturreraino daroa Lazkanok bere identitate eraikuntzan, hildakoak eurekin bizi direlako edota bera ere haiekin hil zelako, eta deus ere argi ez duelako. Azkenean historia bera fikzioa edo errealtatea den askotan ez dakigulako. Eta batez ere, “pentsatu eta esaten ez diren gauzak esaten direnak baino askoz gehiago” direlako. Gauzak beste modu batera izan daitezkeelako. Lazkano izan zitekeelako eta ez Soto, 215. orrialdean Faulknerren liburua utzi, eta betiko atsedenerako bidea hartu zuena; izan ere, Sotoren orde ezzenatoki hartan, Lazkano ez egotearen arrazoi bakarra, gidatzeko karnetik ez edukitzea baitzen.

Artez, sentimenduz, hausnarketaz josiriko errelatoa da eta une bakar bat du helduleku, Soto eta Zeberioen desagerketa eta heriotza. Espazioa, denbora eta pertsonaien etenik gabeko jauzi erauziak ez du galbidean jartzen kontaktaren joana, ur-jauzien indar zentrifugoaren antzeko hari narratibo ondo baino hobeto tinkatuak gidatzen du errelatoa nahi duen lekutik nahi duen denborara. Bizitzaren eta historiaren sentimenduen errailetara bidaiatzen du kontaktak, eta hori bikain harilkatzen du Canok, saminez, umorez eta paradoxez.



# iRuNazarra

TaBERNa • JaTeXea



Merkaderes kalea, 15 · 31001 IRUÑA (Nafarroa)  
T 948 22 51 67 · info@irunazarra.org · www.irunazarra.org

# CuadraBus

www.cuadrabus.com

☎ 945 890 804 / 670 477 727 · Faxes: 945 892 215  
info@cuadrabus.com